



ALKIZAKO UDALA

UDALBATZARRAK 2023ko IRAILAREN 12AN EGINDAKO EZ OHIKO BILKURAREN AKTA

2023ko irailaren 12an, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 19.00etan, Inaki Irazabalbeitia Fernandez Alkatearen Lehendakartzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Inaki Irazabalbeitia Fernandez
ZINEGOTZIAK : Jose M^a Aranzabe Urruzola
Unai Sorarrain Urruzola
Ana Agesta Echecolonea
Nagore Arizeta Garmendia
Gillermo Otegi Zubillaga

BERE EZIN ETORRIA AZALTZEN DUTE: Koldobika Jauregi Zinkunegi.

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

.../...

Ondorengo gaiak aztertu eta erabaki ziren:

- 1. Alkizako Sormenaren kabia: bi beken esleipena.**
- 2. Garaikoetxe baserrira doan herri bidearen konponketaren esleipena.**
- 3. Alkizako erretore etxean igogailuaren ipintzea eta irisgarritasun baldintzen hobekuntza lanak kontratatzeko esleipena.**

.../...

LEHENENGO PUNTUA

ALKIZAKO SORMENAREN KABIA: BI BEKEN ESLEIPENA

Ikusirik 2023ko maiatzaren 16an egindako ez ohiko Udalbatzarrean, Alkizako Sormenaren kabia: Deialdiaren hasiera eta oinarrien onspena ematea erabaki zela.



ALKIZAKO UDALA

Ikusirik aipaturiko deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zela, maiatzaren 29an, proposamenak aurkezteko epea ireki zelarik, ekainaren 30era bitartean. Epe hau bi astez luzatu zelarik.

Ikusirik Sormenaren kabiaren proiektuak baloratzeko 2023ko uztailaren 19an, Laia Varela (bitxigilea), Koldobika Jauregui Zinkunegi (eskultorea) eta Ione Larrañaga (ilustratzailea) Sanz jaun/andreak osaturiko epaimahaia bildu zela. Ondorengo proposamena hartu zutelarik:

“Nomad Studioko Eli Garmendia eta Carlos Pericás” eta Miriam Loidi-ri esleitzea 2023 urteko Sormenaren Kabiaren bi bekak.”

Gaia azterturik Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- “Nomad Studioko Eli Garmendia eta Carlos Pericás” eta “Miriam Loidi” sortzaileei Sormenaren kabiaren beken onuradunak izateko onespena ematea.

BIGARRENA.- “Nomad Studioko Eli Garmendia eta Carlos Pericás” eta “Miriam Loidi”-ri 1.000,00 euroko beka bana ematea eta bakoitzari Lete nekazaletxean 3 asteko egonaldia ordaintzea. Dagokion gastua onestuz, ordainketa udal aurrekontuetako 480.172.00.01 partidaren kontura egingo delarik.

BIGARRENGO PUNTUA

GARAIKOETXEA BASERRIRA DOAN HERRI BIDEAREN KONPONKETA LANEN ESLEIPENA

Alkizako Udalak, beharrezko ikusten du Garaikoetxe baserrira doan herri bidearen konponketa lanak egitea, oso egoera txarrean dagoelako.

Ikusita Gipuzkoako Foru Aldundiko ekonomia sustapeneko, turismoko eta landa inguruneko departamentuak aipaturiko herri bidea konpontzeko diru-laguntza esleitu duela.

Ikusirik, aipaturiko lanak egiteko hiru aurrekontu eskatu direla:

-Ostarbi eraikuntzak eta zerbitzuak -lan kargatik lana ez duela egingo jakinarazi duena.



ALKIZAKO UDALA

- Larun 2012
- Garro Construcciones Eraikuntzak

Ikusita aurrekontu hauen artean egokiena Larun 2012 enpresarena dela.

Ikusita Alkizako Udalak ez dituela baliabide pertsonal ez materialik lan hauek egiteko.

Azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko kontratu legeko 118 artikulua arabera kontratu txiki baten aurrean gaude. *Obra* kontratu txiki baten aurrean.

Artículo 118. Expediente de contratación en contratos menores.

1. Se consideran contratos menores los contratos de valor estimado inferior a 40.000 euros, cuando se trate de contratos de obras, o a 15.000 euros, cuando se trate de contratos de suministro o de servicios, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 229 en relación con las obras, servicios y suministros centralizados en el ámbito estatal.

En los contratos menores la tramitación del expediente exigirá el informe del órgano de contratación motivando la necesidad del contrato. Asimismo se requerirá la aprobación del gasto y la incorporación al mismo de la factura correspondiente, que deberá reunir los requisitos que las normas de desarrollo de esta Ley establezcan.

2. En el contrato menor de obras, deberá añadirse, además, el presupuesto de las obras, sin perjuicio de que deba existir el correspondiente proyecto cuando normas específicas así lo requieran. Deberá igualmente solicitarse el informe de las oficinas o unidades de supervisión a que se refiere el artículo 235 cuando el trabajo afecte a la estabilidad, seguridad o estanqueidad de la obra.

3. En el expediente se justificará que no se está alterando el objeto del contrato para evitar la aplicación de las reglas generales de contratación, y que el contratista no ha suscrito más contratos menores que individual o conjuntamente superen la cifra que



ALKIZAKO UDALA

consta en el apartado primero de este artículo. El órgano de contratación comprobará el cumplimiento de dicha regla. Quedan excluidos los supuestos encuadrados en el artículo 168.a).2.º

4. Los contratos menores se publicarán en la forma prevista en el artículo 63.4.

Obra kontratu txiki bat bezala hartu behar da, 40.000,00€ azpitik dagoelako.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: LARUN 2012 enpresari, Alkizako Garaikoetxea baserrira doan herri bidearen konponketa lanen kontratua esleitzea 36.210,00€ diru kopuruan (BEZa kanpo), ordainketa **1.0000. 601.153.04.01** kontu sailaren kontura **“Herri bideak konpontzea”**.

BIGARRENA: Erabaki honen berri, LARUN 2012, Garro Construcciones-Eraikuntzak eta Ostarbi Eraikuntzak eta Zerbitzuak enpresei ematea.

HIRUGARRENGO PUNTUA

ALKIZAKO ERRETORE ETXEAN IGOGAILUAREN IPINTZEA ETA IRISGARRITASUN BALDINTZEN HOBEKUNTZA LANEN ESLEIPENA

Kontuan hartuta, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 28. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, Korporazio honek beharrezkotzat jotzen duela Alkizako Erretore Etxean igogailua jartzeko eta irisgarritasuna hobetzeko obrak gauzatzeko kontratu bat tramitatzea, 144.358,11 euroko balio zenbatetsiarekin, eta lizitaziorako oinarrizko aurrekontu bat, 145.471,22 eurokoa.

Udal Zerbitzu Teknikoek egindako txostena aztertu da. Bertan, proiektuaren alderdi teknikoak eta jarduketa horren bideragarritasuna zehazten dira, eta baloratutako memorian eta lizitazioa arautuko duten Baldintza Teknikoen Orrietan jasotzen dira.

Kontuan hartuta Alkatetza honek 2023ko martxoaren 7an emandako ebazpenaren bidez, obren dokumentazio teknikoa onartu zela,



ALKIZAKO UDALA

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (SPKL 2017) 236.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Ikusita, 2023 1 0000.622.920.00.01 aurrekontu-aplikazioaren kargurako 145.471,22 euroko kreditu-atxikipena, izapidetu beharreko zerbitzu-kontratuaren balio zenbatetsia dena.

Obraren zuinketa-akta aztertu da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 236. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako.

Kontratazio espedienteari buruz Udal honetako Idazkaritzak egindako txosten juridikoa aztertu da.

Kontratu hori arautuko duten administrazio-klausula partikularren agiriak onartu dira.

Udal honetako Kontuhartzaitzak igorritako aldeko fiskalizazioa aztertu da.

Kontuan hartuta 2023ko martxoaren 28ko Osoko Bilkuraren bidez, erreferentziako kontraturako kontratazio-espedientea onartu zela, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (SPKL 2017) 116. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera, eta prozedura ireki sinplifikaturako deialdia egin zela, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (SPKL 2017) 159. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Kontratazio Mahaiak egindako proposamena aztertu da eta eskaintza 1 aurkeztu da (lizitatzailleak: OSTARBI ERAIKUNTZA ETA ZERBITZUAK, S.L.), eta puntuazio hau lortu dute:

LIZITATZAILEA	1	2	3	PUNTUAKETA GUZTIRA
Ostarbi Eraikuntza eta Zerbitzuak, S.L.	65 PUNTU	10 PUNTU	10 PUNTU	85 PUNTU

Kontuan hartu da sektore publikoaren kontratazio-araudian jasotako preskripzioak bete direla eta, bestetik, eskaintzarik



ALKIZAKO UDALA

onuragarriena OSTARBI ERAIKUNTZA ETA ZERBITZUAK, S.L. merkataritza-sozietateak aurkeztutakoa dela. Era berean, eskatutako dokumentazioa aurkeztu du, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 159.4 artikuluan (3/2020 Legeak emandako idazketan) ezarritakoaren arabera.

Ikusirik, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (SPKL) Bigarren Xedapen Gehigarrian aurreikusitakoarekin bat etorriz, korporazioaren osoko bilkura dela kontratazio organo eskuduna.

Gaia eztabaidatu ondoren, Udalbatzak, aho batez, honako hau

ERABAKITZEN DU:

LEHENA - OSTARBI ERAIKUNTZA ETA ZERBITZUAK, S.L. merkataritza-enpresari esleitzea Alkizako Erretore Etxean igogailu instalazioa eta irisgarritasunaren hobekuntzak egiteko lanen kontratua. Kontratu hori prozedura ireki sinplifikatuaren bidez izapidetuko da, ohiko izapideetan, 119.304,22 euroko zenbatekoan, BEZik gabe, eta lau hilabeteko epean burutzeko.

Esleipenaren arrazoia:

Eskatutako baldintza guztiak betetzen dituen eskaintza bakarra aurkeztu da.

BIGARRENA.- OSTARBI ERAIKUNTZA ETA ZERBITZUAK, S.L. merkataritza-enpresari kontratu hori formalizatzeko eskatzea, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 153. artikuluan aurreikusitako moduan lizitatzailerei esleipen honen jakinarazpena egiten zaienetik hamabost egun balioduneko epean.

HIRUGARRENA.- Kontratazio honen formalizazioa kontratatzailearen profilean argitaratzea, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 154. artikuluan xedatutakoaren arabera (SPKL 2017).

LAUGARRENA.- Kontratu honen arduradun izendatzea, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (SPKL 2017) 62. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, obren zuzendaritza fakultatiboa.



ALKIZAKO UDALA

Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 19:21etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.

